


LABORAL, XIXON EKAINAREN 17TIK 21A ARTE
FUNDAÇÃO DE SERRALVES, PORTO EKAINAREN 25ETIK 29A ARTE
ARTELEKU, DONOSTIA IRAILAREN 1 ETIK 20A ARTE



MUGATXOAN ARTE PROIEKTU BAT DA, 1998Z GEROZTIK JARDUNEAN ARI DEN ENTRECUERPOS-MUGATXOAN KULTUR ELKARTEAK SORTUA. EUSKARAZKO IZENBURUAK BERRETSI EGITEN DU GURE PROIEKTUA ESPAZIO ITXI BILAKATZEKO BOKAZIORIK EZ DUEN LURRALDE KONTZEPTUAL BATEAN KOKATZEKO BORONDATEA, HORRI ESKER SORMEN JARDUERETAKO ALDAKETAK BARNERATU, BESTE BALIABIDE BATZUK ASMATU EDO EZUSTEKO NARRAZIOAK PROPOSATU AHAL IZANGO BAITUGU.

MUGATXOAN TARTEKO ESPAZIO IDEIATIK ABIATUTA ERATZEN DA, TARTEKO ESPAZIOA KODEEN ZIRKULAZIORAKO LEKUA DEN ALDETIK, ERAGITEN DIZKIOTEN MUGIMENDU ETA LEKUALDATZE ETENGABEEK BIRDEFINITUA.

IGAROTZE MODUAN PLANTEATZEN DA, LEKU BATETIK BESTE BATERA JOATEAREN EKINTZAN, ETA HORI GERTATZEN DEN IGAROTZE LEKU ZEIN DENBORA MODUAN ERE; HORREGATIK IRISTEN DU BERE ESANAHI OSOA GERTATZEN DEN HIRU HIRIBURUETATIK IGAROTZEAN.

HASIERA-HASIERATIK ARTELEKUK (DONOSTIA) BABESTU IZAN DU PROIEKTU HAU, ETA BAI EKOIZLE BAI MUGATXOAN GARATZEN DEN LEKUA IZAN DA. PROTESTA KULTUR PROIEKTUAK ESPERIMENTAZIO-LEKU BEREZETAN GARATZEA AHALBIDETUKO ZITUEN HARREMANAK SORTZEKO PREMIAK EKARRI ZUEN 2001EAN FUNDAÇÃO DE SERRALVES (PORTO) DELAKOAREKIN ELKARLANEAN JARDUN IZANA. 2008AN LAUGARREN EKOIZLEKIDE ELKARTUA GAINERATU ZEN, XIXONEKO LABORAL.

MUGATXOANEN GARAPENAREN FUNTSEZKO PARTE BAT ZUZENEAN LOTUTA DAGO TAILERRETAN PARTE HARTU DUTEN ARTISTA GAZTEEI, BEREN PREMIAK AZALDUTA GIDATU EGIN BAIKAITUZTE PROIEKTUA ESTRUKTURALKI ALDATZEKO ORDUAN.

HORREK EKARRI ZUEN 2001EAN ERALDATZE-ETENALDI BAT, GOGOETA ETA ALDAKETA ESTRUKTURALEKO EGOERA BAT ETA LEHENBIZIKO KOPRODUKZIOAK.

2007AN, EKOITZITAKO ZENBAIT ARTISTARI DEIALDIA EGIN GENIEN MUGATXOAN ZER IZAN ZEN ETA ETORKIZUNEAN IZAN ZITEKEENAREN INGURUAN GOGOETA EGIN ZEZATEN, ETA ZEHATZ-MEHATZ AZTERTU GENITUEN PROIEKTUAREN ALDERDIAK, DEFINITZEN DUTENAK, BEHARREZKOAK DIRENAK ETA BAZTERTU EGIN BEHAR ZIRENAK. BILERA HAIEATIK MIAKETAK IZENENKO LAN-TALDE BAT SORTU ZEN, 2008KO EMANALDIEZ GEROZTIK GUREKIN EGON DENA.

GAUR EGUN ARTXIBO LANA EGITEN ARI GARA, IRUDIAK BILTZEN ETA 1999Z GEROZTIK GURE IBILBIDEAREN PARTE DIREN ARTISTAK ELKARRIZKETATZEN, WEB ORRI BERRIAN ETA MUGATXOAN HAMAR DOKUMENTALEAN SARTUKO DIRENAK..

AURKEZPENAK
HITZALDIAK
TAILERRAK



MUGATXOAN 2009K ZENBAIT ASTETAKO PROGRAMA BAT PLANTEATZEN DU EGINGO DEN HIRI BAKOITZEAN, ARTE GARAIKIDEEN ZENBAIT ADIBIDE ERABILITA (PERFORMANCEA, IKUSIZKO ARTEAK, DANTZA, ANTZERKIA) ETA IKERTZEKO, GOGOETA EGITEKO ETA PIEZA BERRIAK EKOIZTEKO LEKUA UTZITA.

LA LABORALEN, ESTREINAKO ALDIZ DENBORAZKOTASUN KOMUN BATEKIN, 2001 ETA 2008 ARTEAN EKOITZI DITUGUN ARTISTA PIEZETAKO HAMABI AURKEZTUKO DIRA. EMAKUMEZKO ARTISTA GAZTE HAUEK AZKEN JAIALDIETAN EGINDAKO NAZIOARTEKO DEIALDIEN BITARTEZ IZAN ZIREN AUKERATUAK, TAILERRETAN PARTE HARTU ZUTEN ETA BEREN BANAKAKO PROIEKTUAK AURRERA ERAMAN. PROIEKTU HORIEK LAGUNDU EGIN DITUGU, ETA ESPAZIOA ZEIN DENBORA EMAN DIEGU HAIEN PROZESU ETA AURKEZPENAREKIN AURRERA JARRAITZEKO.

LABORAL, CIUDAD DE LA CULTURAKO ZENBAIT KOKAPENETAN IKUSI AHAL IZANGO DITUZUEN LANEK ATENTZIOA EMATEN DUTE BEREN HETEROGENEOTASUN KONTZEPTUALAGATIK, BITARTEKOAK AUKERATZEKO ORDUAN ERAKUSTEN DUTEN AUKERA ANIZTASUNAGATIK ETA AURKEZTUTAKO PROPOSAMENEN PLURALITASUNAGATIK. IA GUZTIAK DIZIPLINA KLASIKOEK INPOSATUTAKO MUGAK GAINDITZEKO NAHITIK ABIATUTA DAUDE PENTSATUTA.

LAN HORIETAN ZEHAR EGINDAKO IBILBIDEA DA, GURE OROIMEN HURBILA BERRIZ BISITATZEKO ASMOZ ORAINA KOKATU ETA ETORKIZUNA PENTSATZEKO.

FUNDAÇÃO DE SERRALVESEN, OROIMENA BERRIKUSTEKO IDEIAREKIN JARRAITUTA, ETENALDI BAT EGITEN DUGU, ETA ILDO HORRETAN SAKONDU EGINGO DUGU ETENIKO DENBORAREN IDEIAN BOST PIEZA AURKEZTUTA. HAIETAKO LAUK OSAGAI KOMUNA DUTE BIDEOA ERABILTZEA, GERTAKARIAREN IRAKURKETA LINEALA ZALANTZAN JARTZEN DUEN DENBORA ETA ESPAZIO ALORREKO ARTIKULAZIORAKO TRESNA GISA. OSKAR GÓMEZ MATAREN PIEZAN KAÏROS NOZIOA LANTZEN DA, HAU DA, OSOTASUNAREKIN ONGI SINKRONIZATUTA EGOTEA. DENBORAREN NOLAKOTASUNA IZENDATZEN DU, HOTS, JOKATZEKO UNE EGOKIA EZAGUTZEA.

BI PROGRAMA HORIEK ARTISTEN LANA TESTU-INGURATZERA ETA EDUKIAK EKOIZTERA BIDERATUTAKO HITZALDI ETA TOPAKETA MULTZO BATEKIN OSATZEN DIRA.

ARTELEKUN IRAILEAN TAILER BAT PROPOSATZEN DUGU MARTEN SPANGBERG ETA TOR LINDSTRAD (*INTERNATIONAL FESTIVAL*) ARTISTEKIN; PROIEKTUA PERFORMANCEAREN ETA ARKITEKTURAREN ARTEAN MUGITZEN DA, ETA KULTURA SEKTOREAN AREAGOTU DAITEZKEEN ELKARLAN MOLDE BERRIAK ZIRKULAZIOAN JARTZEN DITU. HAIEN "THE THEATRE" PROIEKTUAREN HELBURUA DA GAUR EGUNGO KULTUR PRAKTIKAK ETA EKONOMIA AIPAGAI HARTZEA, EGUNGO ALTERNATIBA BAT, LANAREN LANAZ, ERAIKITZEKO AHALEGIN AKTIBO BATEN BITARTEZ.

GAINERA, *MUGATXOAN HAMAR* DOKUMENTALA PROIEKTATUKO DA, 2008AN HASITAKOAK; IRUDI HORIETAN PROIEKTUAREN UNE IHESKORRAK BILTZEN DIRA.

LA LABORAL

Aurkezpenak

Ekainaren 17a	19:00 <i>Desde. La Laboral.</i> Edurne Rubio 21:00 <i>Proyecto (archivo de intentos íntimos).</i> Amaya González Reyes. <i>Précipité.</i> Bénédicte Zanon y Jonathan Merlin <i>Escala.</i> Marta Bernardes
Ekainaren 18a	19:00 <i>Desde. La Laboral.</i> Edurne Rubio 21:00 <i>200g.</i> António Julio, <i>El eclipse de A.</i> Amaia Urria
Ekainaren 19a	19:00 <i>Desde. La Laboral.</i> Edurne Rubio 21:00 <i>Los cuerpos cuando caen hacen ruido.</i> Alejandra Pombo <i>A space odyssey.</i> Cuqui Jerez
Ekainaren 20a	19:00 <i>Desde. La Laboral.</i> Edurne Rubio 21:00 <i>Dora dream.</i> Sandra Cuesta <i>El caso del espectador.</i> María Jerez
Ekainaren 21a	17:00 <i>Desde. La Laboral.</i> Edurne Rubio 19:00 <i>Plastificación.</i> Larraitz Torres. <i>Finalmente. ¿con título o sin título?.</i> Loreto Martínez Troncoso

Hitzaldiak

Ekainaren 17a	17:00 <i>Presentación proyecto.</i> Blanca Calvo y Ion Munduate
Ekainaren 19a	17:00 <i>Quimeras y Altares.</i> Laurence Rassel
Ekainaren 20a.	17:00 <i>Internacional Festival.</i> Marten Spangberg
Ekainaren 21a..	13:00 <i>Cuerpo/Espacio/Memoria.</i> Santiago Eraso

FUNDAÇÃO DE SERRALVES

Aurkezpenak

Ekainaren 25a	22:00 <i>Dora dream.</i> Sandra Cuesta y <i>Plastificación.</i> Larraitz Torres.
Ekainaren 26a	22:00 <i>El eclipse de A.</i> Amaia Urria
Ekainaren 27 eta 28a	22:00 <i>Kaïros, Sísifos y Zombies.</i> Cia l'Alakran
Ekainaren 26a	22:00 <i>El caso del espectador.</i> María Jeréz

Hitzaldiak

Ekainaren 26a. 17:00	<i>Solasaldia Sandra Cuesta eta Larraitz Torresekin</i>
Ekainaren 29a. 17:00	<i>Solasaldia Amaia Urrarekin</i>

ARTELEKU

Tailerra

Irailaren 1etik 12a arte **Marten Spangberg y Tor Lindstrad** (Estocolmo)

Aurkezpenak

Irailaren 16a	21:00 <i>Zenbait artista</i>
Irailaren 17a	21:00 <i>Zenbait artista</i>
Irailaren 18a	21:00 <i>Mugatxoan 10 dokumentala</i>
Irailaren 19a	21:00 <i>Zenbait artista. Itxiera ekitaldia</i>

Proiektu elkartua eta honako hauekin koprodukzioan



SERRALVES

laboral
teatro



Kolaboratzaileak

swiss arts council
prohelvetia

EKAINAREN 17TIK 21A ARTE. 19:00 LABORAL

* (EKAINAREN 21EAN IZAN EZIK: 17:00ETAN)

**DESDE. LA LABORAL (2009)****EDURNE RUBIO.**

EKOIZPENA: TEATRO DE LA LABORAL

IRAUPENA: ORDUBETE

LEKUA: CIUDAD DE LA CULTURAKO ZENBAIT ESPAZIOTATIK IBILTzea

"JATORRIAK EZ DU ESAN NAHI BILAKATZE PROZESUA SORTU DEN HORRETATIK ABIATUTA, BILAKATZE ETA DESAGERTZE PROZESUTIK SORTZEN DENA, JATORRIA BAIZIK, BILAKATZEAREN JARIOA DEN ALDETIK. GURE IRAGANA ETA GURE HISTORIA GURE ETORKIZUNA DIRA ALDI BEREAN".

WALTER BENJAMIN

DESDE ARTE PROIEKTUAK *SITE-SPECIFIC* BATEN EZAUGARRIAK DITU ETA LEKUALDATU EGIN DAITEKE ARTE ZENTROAK BILAKATZEKO HAIEN JATORRIZKO ERABILERA ERALDATU EGIN ZEN LEKUETARA.

LA LABORAL HONEK EMATEN DUEN BAINO ARESTIAGOKO IRAGANA DU ETA KARGA EMOZIONAL INDARTSUA DAUKA, BEHARBADA JATORRI POLITIKOA BAINO GEHIAGO BERTAKO BIZTANLEAK IZAN ZIRELAKO ETA BADIRELAKO, BATEZ ERE, HAURRAK ETA NERABEAK; LA LABORALEK, MUNDU GUZTIAK IRITZI HAIN BIRIBILAK DITUEN LEKU ERRALDOI HORREK, BERRIRO ERE BIZI DITU ALDAKETA GARAIK.

ERAIKINAREN PARTE IZAN DIREN ETA DIREN PERTSONA MULTZO ASKOTARIKO BATI URTEBETEZ ELKARRIZKETAK EGIN ONDOREN, *DESDE. LA LABORAL* AUDIO-GIDA MODUAN AURKEZTEN DA, ESPAZIOAN ETA DENBORAN ZEHAR EGINDAKO IBILALDI BATEN MODURA, IKASLEEN, IRAKASLEEN, ARTISTEN, POLITIKARIEN, ZAINEN, AUZOKOEN... AHOZTEN BITARTEZ GIDATUA. DOKUMENTAL HORRETAN FILMATUTAKO IRUDIA EZ DA BEHARREZKOA, IKUSLEAK SOINUZKO LEKUKOTZETAN DESKRIBATUTAKO ESPAZIOAK ORAINEAN BIZITZEKO AUKERA DUELAKO. DISKURTSOA OROIMENAREN EDO INTERPRETAZIOAREN ESPARRUTIK ABIATUTA GARATZEN DA, ETA ELKARRIZKETATUAREN BEGIRADARI IKUSLEARENA GAINERATZEN ZAIO, ETA HARTARA ESPAZIO MENTALEN GAINJARTZE IMAJINARIO BAT SORTZEN DA. *DESDE (-TIK)* HORREK DENBORA ETA ESPAZIOA HARTZEN DITU BARNE: "ORDUTIK... ORAIN ARTE..." EDO "HEMENDIK... HARAINO..."

ESKERRIK ASKO ELKARRIZKETATU GUZTIEI, ETA ERA BEREZIAN LUIS FERNÁNDEZI EMANDAKO LAGUNTZA ITZELAGATIK

EDURNE RUBIO. BURGOS 1974

BILBON EGIN DITU ARTE EDERREKO IKASKETAK. 1998AN DIRULAGUNTZA BAT EMAN ZIOTEN BELGIKAN, ETA HARREZ GEROZTIK BRUSELAN BIZI DA.

DENBORAREN ETA ESPAZIOAREN PERTZEPZIO BANAKO EDO KOLEKTIBOAREN INGURUAN EGITEN DU LAN, LEKU BATI EDO TESTUINGURU BATI INTERBENTZIO ESPEZIFIKOAK EGINEZ. AZKEN URTEOTAN DOKUMENTALETIK HURBIL DAUDEN BIDEO EDO AUDIO PROIEKTUAK EGIN DITU, IKUSLEEI FORMATU EDO MEDIO DESBERDINETAN ESKAINIAK: IBILBIDEAK, INSTALAZIOAK, TOPAKETAK, INTERNET.

2006AZ GEROZTIK ELKARLANEAN ARI DA CLARA RUBIOREKIN (SOZIOLOGOA BERA), *HISTORIAS GEMELAS* PROIEKTUA GARATZEN; ZENBAIT HERRIALDETAN BILDUTAKO ISTORIO PARALELO ERREAL EDO FIKZIOZKOEN ARTXIBO SUBJEKTIBO BAT.

ASTEAZKENA 17. 21:00. LA LABORAL




PROYECTO (ARCHIVO DE INTENTOS ÍNTIMOS) (2009) AMAYA GONZÁLEZ REYES

ZUZENDARITZA: AMAYA GONZÁLEZ REYES
BÍDEO-LAGUNTZAILEAK: JOSÉ M. VIDAL VIDAL ETA ISABEL MARTÍNEZ MARTÍNEZ.
MUGATXOAN 2008 / ARTELEKU GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA / FUNDAÇÃO DE SERRALVES / TEATRO DE LA LABORAL ARTEKO KOPRODUKZIOA
LEKUA: LA LABORALEKO ANTZOKIA

ARTXIBO ILUN BAT, ARGITARA ATERAKO EZ ZENUKEENA HAIN ZUZEN ERE HORRETAZ HITZ EGITEKO IZANGO EZ BALITZ, IRUDIMENARI LAGUN EGITEN DIOTEN SENTIPEN HORIETAZ GUZTIEZ, DESIRAN, AMETSETAN, FRUSTRAZIOETAN, ILUSIOAN, DESENGAINUAN...

ARTXIBOAREN MATERIALA EZEZAGUNEKIN PARTEKATZEAK INTIMITATE HORI BORTXATZEA DAKAR, ETA HORREGATIK EZIN DA ERAKUTSI BESTERIK GABE, EZIN DA URRUNEAN IKUSGAI JARRI, NOLABAITEKO HURBILTASUNA BEHAR DA IKUSLEARENGANAKO.

AMAYA GONZÁLEZ REYES, SANXENXO, 1979. EDOZEIN GAUZA ERABILTZEN DU AITZAKIA GISA NOLA BUKATUKO DUEN ONGI EZ DAKIEN ZERBAIT EGITEN HASTEKO. LAN EGITEAN IA BETI ZALANTZA ETA ZEHAZTUGABETASUNA ERABILTZEN DITU DENBORAREN JOANAZ EBAZTEN DIREN PROIEKTUETARAKO HARI GISA; IZAN ERE, ERREALITATEAN DENBORA DA HAREN LANABESA, ETA HORREKIN BATERA EGITEKO ETA DESEGITEKO GOGOAK GAUZA ZEHATZ BATERA IRISTEKO, BILATZEN DUENA DELA SUPOSATZEN DUENA. HAREN USTEZ EZ DAUKA GAI BAT, METODO BAT BAIZIK, EGUNEROKOTASUNAREN BIZIPENEKIN LANTZEN DUENA BERE ESPERIENZA PERTSONALETIK ABIATUTA GAI KOMUNETARA HURBILTZEN DIRENAK, BAINA KONTUA DA EZ DUELA IRIZPIDE BALIAGARRIRIK AURKITZEN ZER INTERESATZEN ZAION DEFINITZEKO, EZ DAKIELA BERE KEZKAK SAILKATZEN EZ BADA AURKITUAKO, APETAK, EZUSTEKO, BILATUA BEZALAKO TERMINOEN BITARTEZ. EZ DAKI ZERGATIK EGITEN DUEN EGITEN DUENA, BAINA EGITERA NOLA IRISTEN DEN BALDIN BADAHI DIBERTITU EGITEN DA EDO, GUTXIENEZ, SAIATU EGITEN DA, BILAKA DAITEKEEN GUZTIA INTERESATZEN ZAIO ETA KONFIANTZA DU DENBORAN. ARTE EDERRETAKO HEZIKETAK ETA LERRATZEAK LAGUNDU DIOTE ZENBAIT PROIEKTU EGITEN, BAITA BESTE ALOR BATZUETAKO JENDEA TOPATZEN ERE, ESPLORATZAILE POTENTZIAL BATENTZAT ABIABIDE BERRIAK SORTZEN DITUZTENAK BETI.



ESCALA (2009)

MARTA BERNARDES

MUGATXOAN 2008 / ARTELEKU GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA/FUNDAÇÃO DE SERRALVES / TEATRO DE LA LABORAL ARTEKO KOPRODUKZIOA.
KOLABORATZAILEAK: MAGMA, ARCO DA VELHA
LEKUA: LA LABORALEKO ANTZOKIA

RIGOR, DE-CISIÓN. EJERCICIO DE GEOMETRÍA. DEFINI BEDI PUNTU BAT, HALAKO MOLDEZ, NON HARANTZ, HANDIK ABIATUTA EDO HURA ZEHARKATUTA IBILI AHAL IZAN GAITEZEN. PUNTUA ESPAZIOA BETETZEN DUEN UNITATE ABSTRAKTUA BAITA, BI LERRO ZUZEN ELKARTZEA BEHAR DU. LERRO ZUZEN HORIEK DEFINITU ETA MARRATZEKO BI PUNTU BEHAR DITUGU, EDO PUNTU BAT ETA NORABIDE BAT, HAIETAKO BAKOITZARENZAT. PUNTU HORIETAKO BAKOITZA DEFINITZEKO GURUTZATZEN DIREN BI LERRO ZUZEN EDO KOORDENATU BEHAR DITUGU. KOORDENATU SISTEMA BAT MARRATZEKO BEHAR DITUGU BI ARDATZ, HAU DA, BI LERRO ZUZEN, EDO GEHIAGO, ELKARKETA PERPENDIKULARRA

EGITEN ZERO PUNTUTZAT JO DEZAKEGUN PUNTU BATEAN, ETA HAREN INGURUAN ESTIPULATZEN DIRA BALIOAK, DATUAK. BI LERRO ZUZEN HORIEK MARRATZEKO BI PUNTU BEHAR DITUGU, EDO PUNTU BAT ETA NORABIDE BAT, HAIETAKO BAKOITZARENZAT. PUNTU BAT DEFINITZEKO ELKARTZEN DIREN BI LERRO ZUZEN EDO GUTXIENEZ BI ARDATZ DITUEN KOORDENATU SISTEMA BAT BEHAR DUGU. AUSARTZEN BAZARA, DEFINI EZAZU PUNTU BAT ZERBAITEN ERDIAN EDO ZERBAITEN ARTEAN DAGOEN LEKUAN. GERO NORABIDE BAT AUKERATU.

MARTA BERNARDES 1983AN JAIRO ZEN, BESTELAKO JAIOTZEKO AUKERA ERABAT BAZTERTUTA, PORTON. RAQUEL EDO MARTA ISABEL DEITUA IZATEKO ZORIAN EGON ZEN. EZTABAIDA LUZEEN ONDOREN AZKENEAN MARTA RAQUEL ERABAKI ZUTEN IZATEA IZENA. ESNEKO HORTZAK IZAN ZITUEN OSO BERANDU ARTE. EZ ZUEN ANAI-ARREBARIK IZAN, HORREK PENATZEN DU. LEHIAKETA ATLETA IZAN ZEN, ETA IKASLE ONA LEHEN HEZKUNTZAN, BIGARREN URTEKO BELDURRA GORABEHERA. GERORA ERE IKASLE ONA IZATEN JARRAITU ZUEN: OITENTA ESCOLA, PIRES DE LIMA, SOARES DOS REIS, ARTE EDERRAK PORTON, ARTE EDERRAK PARISEN, ETA ORAIN MAILARI EUSTEA ESPERO DU MADRILEN EGITEN ARI DEN FILOSOFIA ALORREKO DOKTORETZAN. IKASLE PROFESIONALA DA IA-IA. URDINA HORIA ETA GORRIA BEZAINBESTE GUSTATZEN ZAIO, BADAIELAKO HIRU KOLORE HORIEZ, MALTZURKERIA PIXKA BATEZ ETA EUSMENAZ MUNDUKO IA KOLORE GUZTIAK LOR DITZAKEELA. JENDE GARRANTZITSUAREN ADISKIDEA DA, BAINA BATEZ ERE GARRANTZITSUA DA ADISKIDEENTZAT. INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO, IDATZI MESEDEZ MARTA BERNARDES GOOGLÉN. MILA ESKER.



PRÉCIPITÉ. (2009)

BEGI-BAZTERREKO BEGIRADAK IRUDIAREN KANTOITIK

BÉNÉDICTE ZANON ETA JONATHAN MERLIN

MUGATXOAN 2008 / ARTELEKU GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA / FUNDAÇÃO DE SERRALVES / TEATRO DE LA LABORAL ARTEKO KOPRODUKZIOA
LEKUA: LA LABORALEKO ANTZOKIA

“ESKUA PASATZEN DUT, TRABESKA ETA ALTUERA ERDIAN. GORPUTZA ASTIRO BIRATZEN DA ESKU HORREN INGURUAN KONTZENTRAZIO HANDIA MANTENDUZ. IBILBIDEA APUR BAT EZKERRERANTZ DESBIDERATZEN DA”.

INSTALAZIOETATIK, GORPUTZAREN EGOERETATIK, OZENTASUN INTIMOETATIK, LERRO ETA PERSPEKTIBETATIK ABIATUTA ERAIKITZEN DA GURE GORPUTZA.

BI GORPUTZ ESZENA ESPAZIO BEREAN. GORPUTZ BATA SOINUZKO INSTALAZIOEI LOTUA, BESTEA INSTALAZIO PLASTIKO ETA KOREOGRAFIKOEI LOTUA.


AHALIK ETA EZAGUNENA DEN ESPAZIO BAT AKTIBATZEN DUGU, ZUZENENKO ERAIKUNTZAREN, IRAGANA/MUNTAIAREN IRUDIAN ARRETA JARTZEAREN ETA EGUNEROKOTASUNAREN GOZOTASUNAREN ARTEAN DAGOEN “NABIGAZIO AURKEZTEAN” GISAKO BAT GARATZEA AHALBIDETUKO DUENA.

BÉNÉDICTE ZANONEK DANTZA KLASIKOA IKASI DU KONTSERBATORIOAN 1992TIK 2001 ARTE, ETA GERO DANTZA GARAIKIDEKO KOREOGRAFIA IKASTEN JARRAITU DU ESTRASBURGON.

ESTRASBURGOKO ARTE DEKORATIBOETAKO GOI-ESKOLAN LIZENTZIADUNA 2007AN, PERFORMANCE ETA BIDEO LANA GARATU DU. 2005AZ GEROZTIK PARISEKO E.BANNWARTH-EN ARTE GALERIAN IZAN DU LANA IKUSGAI.

JONATHAN MERLIN SOINU ALORREAN ARI DA LANEAN 2002Z GEROZTIK, HISTORIA ETA ANTROPOLOGIAKO IKASKETAK BUKATU ONDOREN; HASIERAN SOINU ATZEMAILE GISA ZINEMAN ETA GEROAGO SOINU-BANDAK EGITEN IKUSKARI ETA ERAKUSKETETAN.

OSTEGUNA 18. 21:00. LA LABORAL



200g. (2006)
ANTÓNIO JÚLIO.

IDEIA ETA INTERPRETAZIOA: ANTÓNIO JÚLIO
EGITURAREN DISEINUA: NUNO BRANDAO
MUGATXOAN 2006 / ARTELEKU GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA / FUNDAÇÃO DE SERRALVES ARTEKO KOPRODUKZIOA
IRAUPENA: 35 MINUTU
LEKUA: PLATAFORMA 2 LABORAL ARTE ETA INDUSTRIA SORKUNTZARAKO ZENTROA

200 GR. EZ DA NI ESATEKO MODU BAT. ERAKUSKETA MOTA BAT DA, BAINA BERE EGIN GABEA.

200 GR. BAT ESATEKO MODU BAT DA. PAKETATZE BATEAN PISUAREN ZENBATEKOA BAKARRIK AGERTUKO BALITZ, EZINGO GENUKE EZER JAKIN HAREN EDUKIAREN IZAERAZ. HURA AGERTZEAREN ZAIN EGONGO GINATEKE, PAKETEA IREKI ETA PRODUKTUA EZAGUTZEKO IRRIKAN EGONGO GINATEKE. ETA GERTA LITEKE BARRUKO PRODUKTUA BESTE PAKETATZE BAT IZATEA BESTE PISU BATEKIN, ETA HORREK JARRAITZERA BULTZATUKO GINTUZKE.

200GRK EZKUTATUTAKO EGIA ADIERAZTEN DU, ASKOTAN JAKINARAZIA, ASKOTAN DISTORTSIONATUA. EXISTENTZIA LEKU BAT DA.

ANTÓNIO JÚLIO. GAIA, PORTUGAL, 1977

1996/1998 ESKULTURA IKASTAROA PORTOKO ARTE EDERREKO FAKULTATEAN. 1999/2002 INTERPRETAZIO IKASTAROA PORTOKO ACADEMIA CONTEMPORÁNEA DO ESPECTÁCULO-N.

ANTZERKI, PERFORMANCE ETA DANTZA INTERPRETE GISA LAN EGIN IZAN DU ZENBAIT PORTUGALDAR ZUZENDARIREKIN, HALA NOLA: FRANCISCO ALVES, TEATRO PLÁSTICO; NUNO CARDOSO, TNDMII, LISBOA; CIRCOLANDO KONPAINIA; ANDRÉ GUEDES, ETA JOANA PROVIDÊNCIA.

2004AN MUGATXOAN PARTE HARTU ZUEN, ETA IKERKETA ETA SORKUNTZA PROZESUARI HASIERA EMAN 200 GR. AURKEZTUTA. UNIBERTSITATEKO ANTZERKI TALDE BAT ZUZENDU ZUEN, ENGENHARTE, ETA HAREKIN ANTZEZTU GERARDJAN RIJNDERS-EN *BURACO NEGRO* (2005) ETA BORIS VIAN-EN *O ARRANCA CORAÇÕES* (2007).

GAUR EGUN INTERPRETAZIO IKASGAIA IRAKASTEN DU ACADEMIA CONTEMPORÁNEA DEL ESPECTÁCULO DELAKOAN; INTERPRETE GISA PARTE HARTU DU JOANA PROVIDENCIA-REN AZKEN SORKARIAN.

OSTEGUNA 18. 21:50. LA LABORAL
OSTIRALA 26. 22:00. SERRALVES



EL ECLIPSE DE A. (2002)
AMAIA URRA

KONTZEPTUA ETA INTERPRETAZIOA: AMAIA URRA
ARTE-LAGUNTZAILEA: BLANCA CALVO
MUGATXOAN 2002 / ARTELEKU GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ARTEKO KOPRODUKZIOA
KOLABORATZAILEA: STUK (LOVAINA, BELGIKA)
IRAUPENA: 45 MINUTU
LEKUA: MEDIATECA LABORAL ARTE ETA INDUSTRIA SORKUNTZARAKO ZENTROA

ITXAROTEA DA *EL ECLIPSE DE AREN* MOTORRA; HORI ETA FILM BATEKIN SOLASEAN ARITZEKO DESIRA. AMAIERA ETA HASIERA DUEN GERTAKARI BAT. KONTUA EZ DA DENBORA GALTZEA, DENBORAN GALTZEA BAIZIK, BAT EZ ETORTZEAK BAT ETORTZE ETA LURRERATZEAK AIRERATZE BILAKATZEN DIREN FILM BATEN DENBORAN GALTZEA. INTERESA ZUZENDUTA DAGO GERTAKARI FILMIKO BATEAN DENBORA NOLA ARTIKULATU ETA ERALDATZEN DEN ETA GERTAKARI HORI NOLA JAR DAITEKEEN AURREZ AURRE EDO ERLAZIONATU EGUNEROKOAREKIN ETA ESPAZIO ETA DENBORA PERFORMATIBOAN INSKRIBATUTAKO GERTAKARI BATEKIN.

AMAIA URRA. DONOSTIA 1974.

LIZENTZIADUNA ARTE EDERRETAN, ESKULTURA ESPEZIALITATEAN, 1998, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAN, ETA ALDI BEREAN DANTZA GARAIKIDEA EGITEN DU.

1999Z GEROZTIK BETI LAN EGIN DU ETA ELKARLANEAN JARDUN INTERESATU ETA GOGOIA PIZTEN DIOTEN LANAK EGITEN DITUZTEN ARTISTA ETA KOREOGRAFOEKIN: JUAN DOMÍNGUEZ, CUQUI JEREZ, FREDERIC SEGUETTE, ION MUNDUATE, JÉRÔME BEL, OLGA MESA ETA XAVIER LE ROY.

1999AN ETA 2000N ARTELEKUN MUGATXOAN "TAILERREAN" -ARTISTEN, PROZESUEN, AZKEN PRODUKTUAREN ETA ZENBAIT DIZIPLINAREN ARTEAN ARTIKULATZEN DENA- PARTE HARTU ONDOREN, BERE LANA SORTZEARI EKIN ZION: *DESAYUNO CON DIAMANTES V.E.*, *NO GOAL* BIDEOAK ETA 2002AN ESTREINATU ZUEN BERE LEHEN PIEZA, *EL ECLIPSE DE A.*

OSTIRALA 19. 21:00. LA LABORAL



**LOS CUERPOS CUANDO CAEN HACEN RUIDO (2006)
ALEJANDRA POMBO.**

MUGATXOAN 2006 / ARTELEKU GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA / FUNDAÇÃO DE SERRALVES ARTEKO KOPRODUKZIOA
IRAUPENA: 25 MINUTU
LEKUA: LABORALEKO ANTZOKIKO 2 ARETOA

“LOS CUERPOS CUANDO CAEN HACEN RUIDO” HONETAN NIRE ESPERIENTZIAREN AZTARNA AHULEI JARRAITZEN DIET, EGIA ETA IDENTITATE FINKOETATIK IHES EGIN ETA KORRIKA DABILEN ETA HARRAPA DEZATEN UZTEN EZ DUEN EDO HELBURU ZEHATZ BATEAN AGERIAN GERATZEN EZ DEN MUGIMENDU JARRAITUAREN MUGARANTZ IHES EGITEN UZTEN DIDATEN GEHIEGIZKO KEINUEN BITARTEZ. GAUZAK EGITEKO MODU HORREK ABAGUNE BAKOITZEAN AGERTZEN ZAIDAN BIHOZKADA ETA INTUIZIOPEAN BAKARRIK UZTEN DU IKUSIA IZATEN.

ALEJANDRA POMBO SUÁREZ. SANTIAGO DE COMPOSTELA, 1979.
ARTE EDERREKO IKASKETAK MADRILEKO FAKULTATE KONPLUTENTSEAN, GORPUTZAREN INGURUKO HAINBAT ETA HAINBAT IKASTAROTAN PARTE HARTU ONDOREN ÁMSTERDAMEN, BERLINEN, HANBURGON, BARTZELONAN, MADRILEN, PORTON, DONOSTIAN, SANTIAGON..., ARTE DIGITALETAKO MASTERRA EGIN ONDOREN POMPEU FABRA UNIBERTSITATEAN, IKASKETA INDEPENDENTEEN GRADUONDOA EGIN ONDOREN BARTZELONAKO ARTE GARAIKIDEKO MUSEOAN, GAUR EGUN DOKTORETZA TESIA EGITEN ARI DEN BITARTEAN SORMEN PROZESUA PERFORMANCEAN GAI HARTUTA, ETA 2004KO EKAINAREN 15EAN PORTOKO FUNDAÇÃO SERRALVESEN AUDITORIOAN MANGO BAT JAN ONDOREN, ERABAKI ZUEN BERE ARTE EKOIZPENA HIBRIDO BATI DEDIKATZEA, IHES-NAHI IKASTAROARI.

OSTIRALA 19. 21:50. LA LABORAL



**A SPACE ODYSSEY
2002
CUQUI JEREZ**

INTERPRETEA: CUQUI JEREZ
ARTE-LAGUNTZAILEA: JUAN DOMÍNGUEZ
MUGATXOAN 2002/ ARTELEKU GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA / IN SITU PRODUCTIONS
ARTEAN KOPRODUZITUA, TANZWERKSTATT BERLIN; PODEWIL, BERLIN; SENAT FÜR WISSENSCHAFT ETA FORSCHUNG UND KULTUR, BERLIN-EN BABESAREKIN.
IRAUPENA: ORDUBETE ETA 20 MINUTU (GUTXI GORABEHERA)
LEKUA: LA LABORALEKO ANTZOKIA

ESPAZIOAREN BERAREN IZAERAREN BITARTEZ INBERTITUTA, MANIPULATUTA EDO DISTORTSIONATUTA DAUDEN ESPAZIO ERREALATAN ERAIKITAKO ESPAZIO ERAIKIAK. EZAGUTZEA OROIMENAREN BITARTEZ. ERREALITATEAREN ORDENAREN DISTORTSIOA ERREALITATEAREN BERAREN BITARTEZ. EZAGUTZEAREN JUSTU AURREKO UNEA, ERREALITATEA ORAINDIK LEKU EGOKIAN EZ DAGOENEAN.

CUQUI JEREZ (MADRIL, 1973). LENGOAIA KOREOGRAFIKO BATEN SORRERA LANTZEN DU GORPUTZAREN BITARTEZ ESPAZIOAREKIN, DENBORAREKIN ETA OBJEKTEUEKIN HARREMANEAN; ZEINUAK, ETA BERAZ ESANAHIA, SORTZEA KOREOGRAFIAREN BIDEZ; ESANAHIAREN ERALDATZEA ERREPIKAPENAREN ERREPIKAPENAZ; ESPAZIO ETA DENBORA ERREFERENTZIAN MANIPULAZIOA; IKUSLEAREN ITXAROPENAK ETA ESPERIENTZIA ANTZERKI TESTUINGURU BATEN BARRUAN; OROIMENA ETA EGITURA, LANAREN ALDERDI FUNTSEZKOAK DIREN ALDETIK; IRUDIKAPENAREN MUGAK ETA FIKZIOAREN ETA ERREALITATEAREN ARTEKO MUGAK. 1990EZ GEROZTIK DARAMA DANTZARI ETA INTERPRETE GISA, PROIEKTU DESBERDINETAN LAN EGITEN KOREOGRAFO DESBERDINEKIN, ETA ZENBAIT PIEZA LABUR ETA ELKARLANETAN JARDUN ONDOREN 1999AN HASI ZEN BERE LANA GARATZEN. HAIEN LANAK DIRA: *HIDING INCHES* (1999), *A SPACE ODYSSEY* (2001), *THE REAL FICTION* (2005) ETA *THE REHEARSAL* (2008), *THE NEVERSTARTING STORY* PROIEKTUAREN BARRUAN, AMAIA URRRA, CRISTINA BLANCO ETA MARÍA JEREZEKIN BATERA ELKARLANEAN, SORTUTAKO PIEZA.

LARUNBATA 20. 21:00. LA LABORAL
OSTEGUNA 25. 22:00. SERRALVES



DORA DREAM (2002)
SANDRA CUESTA.

MUGATXOAN 2002 / ARTELEKU GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ARTEKO KOPRODUKZIOA
KOLABORATZAILEAK: IRUNGO UDALA ETA IRUNGO AMAYA ANTZOKIA.
IRAUPENA: 35 MINUTU
LEKUA: PARANINFOA

DORAK, BERE IRUDIA ERALDATZEN DU EUSTEKO DARABILTZAN OBJEKTO BATZUEN ARABERA. NORBAIT BEGIRA DUELA PENTSATUTA, HAREN PORTAERA XEHETASUNEZ OSATUA DA. DENA GERTATZEN DEN ESPAZIOA ESPLORATZEN DU ETA BERE PORTAERA ERAKUSTEN DIE IKUSLEEI. GALERA SAHISTEKO DAGO PENTSATUTA DENA. EGITURA ZIRKULAR OSOAREN BARRUAN ZIKLO TXIKIAK KOKATZEN DIRA, ZEINETAN ZERBAIT SORTZEN BAITA ZERBAITEK IZATEARI UTZI ONDOREN. OSAGARRIEN ETA JARREREN ARTEKO ESPAZIO ERLAZIO BATEAN, DENAK BALDINTZATZEN DU NARRAZIOAREN DENBORA, HAREN JARRAITUTASUNA ZURITZEN EZ DUTEN XEHETASUNEZ OSATUA.

SANDRA CUESTA. URRETXU, GIPUZKOA, 1976.

AAEETAN LIZENTZIADUNA, EHUN. HORREKIN BATERA HEZIKETA HARTU ZUEN DANTZA GARAIKIDEAN ETA DANTZA BERRIAN. MUGATXOAN (1999) PARTE HARTU ONDOREN, KOREOGRAFO GISA HASI ZEN A *SUIVRE* PIEZAREKIN, GABRIELE MUÑAGORRIKIN BATERA. 2001EAN BAKARKAKO BERE LEHEN LANA SORTU ZUEN, *DORA DREAM* (2002), MUGATXOANEK EKOITZIA. GERORA ZENBAIT BIDEO PROIEKTU IDATZI ETA ZUZENDU DITU, HALA NOLA: *LA OTRA MUJER* (2004), *LA TROMPETA* (2006) FILM LABURRA EDO *I WANT TO BELIEVE* (2007) BIDEOKLIPA. 2008AN A *LONG WAY BACK* SORTU ZUEN, BAI ZUZENDU ERE, ENEKO ALCARAZEN PARTE-HARTZEAREKIN. GAUR EGUN *COLOMBINA'S* MUSIKA BIKOTEAN ARI DA LARRAITZ TORRESEKIN BATERA; HAREKIN ELKARLANEAN JARDUN DU HALABER ZENBAIT ARTE PROIEKTUTAN.

[HTTP://WWW.MYSPACE.COM/COLOMBINAS](http://www.myspace.com/colombinas)

LARUNBATA 20. 21:50H. LA LABORAL
ASTELEHENA 29. 22:00H. SERRALVES



**EL CASO DEL
ESPECTADOR (2004)**
MARÍA JEREZ.

ZUZENDARIA ETA INTERPRETEA: MARÍA JEREZ
JANTZIGINTZA: HANNA SJÖDIN
MUGATXOAN 2004 / ARTELEKU GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA / FUNDAÇÃO DE SERRALVES
ARTEKO KOPRODUKZIOA. IN-PRESENTABLE 2004 ETA AULA DE DANZA ESTRELLA CASERO
ALCALÁ DE HENARESEKIN ELKARLANEAN
IRAUPENA: 45 MINUTU
LEKUA: LA LABORALEKO ANTZOKIA

BESAULKI BAT (IKUSLEARI BIZKARRA EMANEZ), LIBURU BATZUK, TELEBISTA BAT ETA KAMERA BAT. EMAKUME BATEK ZUZENEAN SORTZEN DU BERA IKUSLE DUEN FILM BAT. IKUSLEAK BEHATUTAKO IKUSLE BAT BEHATZEN DU. KAMERAREN ERABILERAREN BITARTEZ BI ERREALITATE AGERTZEN DIRA, PARALELOAN DOAZENAK, EZER ABSOLUTURIK EZARTZEN EZ DUTENAK. HARTARA, ERREALITATEA EGOERA ESZENIKO BAT ETA EGOERA ZINEMATOGRAFIKO BATEAN BIKOIZTUTA, PROPOSATUZ ESPAZIO BAKARREAN ELKARBIZI DIREN ESPAZIO ANITZAK, KONTRAESANEAN DOAZEN DENBORAK, INFINITURANTZ GARATZEN DIREN EGITURAK, IRUDI BIKOITZAK, ERREALITATE ETA FIKZIOZKO JOLASAK. BI EGOEREN ALDIBEREKOTASUNAK SORTZEN DU GERTAKARIA...

MARÍA JEREZ, MADRIL 1978.

ANTZERKIA IKASI ZUEN MADRIL ETA PARISEN. ALDI BEREAN INTERESA HARTU ZUEN DANTZAN ETA IKUSIZKO ARTEETAN. 1997AZ GEROZTIK LAN EGIN DU, BAITA ERA DESBERDINETAN ELKARLANEAN JARDUN ERE, ZENBAIT ANTZERKI KONPAINIA, KOREOGRAFO ETA ARTISTA INDEPENDENTEREKIN. 2001EAN HASI ZEN BERE LANA SORTZEN ARTISTA TALDE BATEKIN BATERA SORTUTAKO TOPAKETA ETA ARTE IKERKETARAKO ESPAZIO BATEAN (ST. OÜEN - PARIS). 2002AN MUGATXOAN PROGRAMAN PARTE HARTU ZUEN, ETA LEHEN ESPERIENTZIA HARTATIK SORTU ZUEN BERE LEHEN PIEZA, *EL CASO DEL ESPECTADOR*, 2004AN ESTREINATUA. 2006AN, ALCALÁ DE HENARESEKO ARKITEKTURA ESKOLAKO IKASLEEKIN BATERA, *THIS SIDE UP* SORTU ZUEN. 2008AN *THE NEVERSTARTING STORY* ESTREINATU ZUEN, AMAIA URRRA, CRISTINA BLANCO, CUQUI JEREZ ETA MARIA JEREZEN PROIEKTUA BERA, ETA HARTATIK BI PIEZA SORTU ZIREN: CRISTINA BLANCOREN *THE SET UP* ETA CUQUI JEREZEN *THE REHEARSAL*; FILM BAT: MARÍA JEREZEN *THE MOVIE*; BIDEO-INSTALAZIO BAT: AMAIA URRAREN *THE THING*; BAITA *CINTHY TULO*H ERE, LAU ARTISTEK ELKARLANEAN EGINDAKO FILM LABURRA BERA.

IGANDEA 21. 19:00. LA LABORAL
OSTEGUNA 25. 22:00. SERRALVES



PLASTIFICIÓN (2004)
LARRAITZ TORRES

MUGATXOAN 2004 / ARTELEKU GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA / FUNDAÇÃO DE SERRALVES
ARTEKO KOPRODUKZIOA
IRAUPENA: 40 MINUTU
LEKUA: PLATAFORMA 2, LABORAL ARTE ETA INDUSTRIA SORKUNTZA ZENTROA

BERA: "AURREKO LAN BATEAN AUTOPOTRETA SORTA BATZUK ERABILI NITUEN LAN ESZENIKO BAT EGITEKO. LAN OSO BAKARTIA IZAN ZEN, NI GAZTEAGOA NINTZEN (...)
(MUSIKA NOSTALGIKO BAT ADITZEN DA ETA IRUDIA DESAGERTU EGITEN DA, AMETS BATEAN BEZALA)

BERA GAZTEA: ... ITXURAZ FUNTZIONALA DEN ZERBAITETIK FIKZIO BAT SOR DAITEKE. ETA TIRA!, USTE DUT PARTE HORIEK EZ DUTELA BALIO AURRERA EGITEKO, EZTA ERREPIKATZEKO ERE, IKUSPUNTU DESBERDINAK DIRA GAI BERAREN INGURUAN...


BERA, GEROXEAGO: BEGIRA! LIBURU HONETAN JARTZEN DU...: ZEHARKAKO ESTILOA, EGILEAREN AHOTSAREN ETA PERTSONAIAREN AHOTSAREN ARTEAN LIBREKI MUGITZEA AHALBIDETZEN DUEN DISKURTSOA.

LARRAITZ TORRES. IRUN 1979.

ARTE EDERRETAN LIZENTZIADUNA BILBOKO UNIBERTSITATEAN, ESQUARKI HAREN LANAK NAHASI EGITEN DITU IKUSIZKO ARTEAK ARTE ESZENIKOEKIN. HAREN LEHEN PIEZA, *PLASTIFICIÓN*, MUGATXOAN PROIEKTUAK EKOITZI ZUEN 2004AN. MUSIKARI GISA, PARTE HARTU DU ZENBAIT MUSIKA PROIEKTUTAN, HALA NOLA *LUMAK*, *SEPOITÍ O AMODIO VOL.I.*, *ITURRIAK* ETA *A LONG WAY BACK*. HAREN AZKEN LANAK BIDEOAK DIRA: *AUTOFICCIONES* (2006), *L.A* (2007), *AIDA TORRESEKIN ELKARLANEAN*, ETA *PERMANENT VACATION VERSION* (2008), MYRIAM PÉREZEKIN BATERA.

[HTTP://WWW.MYSPACE.COM/COLOMBINAS](http://www.myspace.com/colombinas)

DOMINGO 21. 20:00H. LA LABORAL



JÉRÔME MULOT

FINALMENTE, ¿CON O SIN TÍTULO? (2006)
LORETO MARTÍNEZ-TRONCOSO.

MUGATXOAN 2006 / ARTELEKU GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA / FUNDAÇÃO DE SERRALVES
ARTEKO KOPRODUKZIOA
LEKUA: 1C ARETOA, LABORAL ARTE ETA INDUSTRIA SORKUNTZA ZENTROA

ABIAPUNTUKO OHARRA :

"ORDUAN IA 6 URTE DARAMAT HIZKETAN. ETA IA 2 ESATEN: ... URTEBETE, 4 HILABETE ETA 19 EGUN ESATEN... 7 HILABETE ETA 21 EGUN ESATEN: ... 5 HILABETE ETA 4 EGUN... 2 HILABETE ETA 7...". HORRELA BUKATZEN NUEN *POR EL MOMENTO SIN TÍTULO*, DUELA ZEHAZKI 2 URTE, 4 HILABETE ETA 11 EGUN.

MONTROUGE, ASTEARTEA, 2008KO AZAROAREN 18A

HONA HEMEN NIRE BIOGRAFIA LERRO GUTXI BATZUETAN, ESKATU DIDATEN BEZALA:
1978 ZERAN JAIOZTEN DA...1999 ZERARA DOA...ZERAREN DIRULAGUNTZAZ...ZERAREKIN LAN EGIN DU...2000 ZERAK ZORIONDU DU...2001 ZERAN PARTE HARTU DU...ZERAN AUKERATU DUTE...2002 ZERAK ZORIONDU DU...ZERAK EROSI DU...ZERAK GOMENDATU DU...ZERAN...ZERAN BIDEOZ PROIEKTATUA... 2003 ZERAK FRANTZIAR ARTISTATZAT JO ZUEN...ZERARAKO... «ONE-WOMAN-SHOW» GISA IRAGARRIA ZERARAKO...ZERAN BIDEO-INSTALATUA...ZERAREKIN ELKARLANEAN...2004 OILASKO HANKAK JAN DITU... ZERAREKIN ELKARLANEAN JARDUN DU...ZERAN PARTE HARTU DU...«ZERAREN INGURUAN LAN EGITEN DUEN ARTISTA»TZAT JO DUTE... ZERARAKO...ZERAK... IRAKURKETA BAT EGIN DU ZERAREN BARRUAN... 2005 KARTA ZURIAN ZERAN... ZERAK «GOMENDATUA» «INTERES HANDIA DUEN» ARTISTA MODUAN...HAUTAGAITZA => ZERARAKO ATXIKIA... ZERAREN PROPOSAMENA... ZERAGATIK BAZTERTUA... ZERAK «POLITIKOKI EZ ZUZEN»TZAT JOA... ZERAREN ERAKUSKETAREN PARTEA IZAN DA... BERE BURUA «KONFORMISTA» GISA AURKEZTEN DA ETA EZ DU ANTZEZTEN X JAIALDIAN, «FRANTZIA» GISA AURKEZTEN DUTE, ZERAK DIRULAGUNTZA EMANA... ZERARAKO... 2006 ZERAN PARTE HARTZEN DU «ARTISTA GALEGO GAZTE» GISA... ZERAK BAZTERTUA LORATEGIAREN ETA KANPOALDEAREN ARETOAN ...ZERAN STRIPEASE EGINA... ZERAN... ETA ZERAN... 2007 EULI BAT AKABATU ZUEN ZERAN... BIDEO-PROIEKZIO BILAKATU ZEN ZERAN... IN-AURKEZTEN DA... PROTOKOLATZEN DA... 2008 *EN EL CAMINO* ABIATZEN DA... HAREN HITZAK/EK KONTATZEN DU/DUTE EDO EZ ZERAN... LOOPEZ HITZ EGIN ZUEN ZEHAZKI 3 HILABETE ETA 7 EGUNEZ ZERAN... *MEDIUMDU* AGIN ZEN ETA «BIZITZAREN IKUSKERA PESIMISTA ERAKUTSI ZUEN» ZERAN ZEHAR... *SHOWTU IN EGIN ZEN*... ETA HURRENGOAN KOMEDIA BAT EGINGO DUELA IRAGARRI DU. «CREACIÓN DE XÉNERO EN GALIZA»TZAT JO DUTE ZERAN... ZERAN GALDU ZUEN AHOA... 2009 «ARTISTA ATÍPIKO [...] SORPRESA ZAPORETSUAK EKAR DITZAKE ETORKIZUNEAN» MODUAN IRAGARRI DUTE... ZERAN DOKUMENTATU ETA LEHEN PERTSONAN ERREGISTRATU DA... AZKENEAN ZERAREKIN BUKATUKO DU... BESTEAK BESTE.

LORETO MARTÍNEZ-TRONCOSO.



ASTEAZKENA 17. 17:00. LABORAL, 1 ARETOA

MUGATXOAN PROIEKTUAREN AURKEZPENEA. **BLANCA CALVO** ETA **ION MUNDUATE**.

MUGATXOANEK EZ DU ESPAZIO DIDAKTIKO BAT PROPOSATZEN, BAIZIK ETA TOPAKETA DIZIPLINARRA, SORMEN PROZESUAK ZALANTZAN JARTZEA ETA IRUDIKAPENAREN ESPAZIOEN DESKOKATZEA ESPERO DIREN LEKU BAT BERRESKURATZEN DU.

BLANCA CALVO (MADRIL 1963) ETA **ION MUNDUATE** (IRUN 1969) BATASUN ARTISTIKO BATEN OSAGAIK DIRA, ETA HORREKIN SORTU DITUZTE PIEZAK 1994Z GEROZTIK, ETA MUGATXOAN PENTSATU 1998AN. PROIEKTU HAU ULERTZEN DUTE BIZI, EMOZIO ETA PENTSAMENDU MOLDE BATEN GISARA.

OSTIRALA 19. 17:00. LABORAL, 1 ARETOA

QUIMERAS Y ALTARES. **LAURENCE RASSEL**.

ASMAKUNTZA, BRIKOLAJEA BEZALA DEFINITUTAKO PROZESU UTOPIKO BATENA, EGUNEROKO OBJEKTUAK, ZATIKAKO ESPERIENTZIAK, KONTZERTU GALDEGILEAK ETA HIPOTESIAK ELKARRETRATU BEHARREKO PROZESU GISA. HITZALDI HONETAN AIPUAK, IRUDIAK, PENTSAMENDUAK ELKARTZEN DIRA OBJEKTUEN ELKARRETRATZEAREN INGURUAN, ESPAZIO PERFORMATIBOA DEN ALDETIK.

LAURENCE RASSEL. 2008KO URRIAZ GEROZTIK BARTZELONAKO FUNDACIÓ ANTONI TÀPIESEKO PROIEKTU-ARDURADUNA. WWW.FUNDACIOTAPIES.ORG 1997TIK 2008 ARTE, BRUSELAN BASEA DUEN IRABAZTEKO ASMORIK GABEKO CONSTANT ERAKUNDEKO TALDEKIDEA. CONSTATTEK HARREMANETAN JARTZEN DITU PENTSAMENDU TEORIKOA, TEKNOLOGIA BERRIEN ERABILERA KRITIKOA, PORTAERA ARTISTIKOA ETA SAREKO EZTABAIDA POLITIKOA. SISTEMA NAGUSIAK HONAKO HAUEK DIRA: SOFTWAREA ETA LIZENTZIA LIBREAK, GENERO AUZIAK, COPYLEFTI DAGOZKION AUZIAK (COPYRIGHT) ETA MEDIOETAKO EZAGUPEN BERRIAK PARTEKATZEKO MOLDE BERRIEN BILAKETA. WWW.CONSTANTVZW.ORG

LARUNBATA 20. 17:00. LABORAL, 1 ARETOA

INTERNATIONAL FESTIVAL. **MARTEN SPANGBERG**,

INTERNATIONAL FESTIVAL HONEK AZUKRE-KOTOIA EGITEKO MAKINA BAT ERAMAN DU EINDHOVEN-EKO VAN ABBEMUSEUM-ERA PUNTU GOZO ARROSAK JAURTITZEKO TEILATUAREN GAINEAN, ALDI BATEKO SUKALDEA SORTU DU BERLIN'S HOUSE OF WORLD CULTURES-EN, APARKALEKU BAT PLAZA PUBLIKO BIHURTU DUTE ESTOKOLMO INGURUKO TENSTA KONSTHALL-EN, ZENBAIT BIDEO EGIN DITUZTE ETA BEREN ARGITALPEN ARETOA ETA BEREN ESKOLA DUTE, *INTERNATIONAL FESTIVAL UNIVERSITY* IZENEKOA, HAINBAT MUSEOTAN LEKUA IZAN DUENA.

MARTEN SPANGBERG ETA **TOR LINDSTRAND** ELKARLANEAN HASI ZIREN *INTERNATIONAL FESTIVAL* GISA 2004AN, BAINA ELKARREKIN JARDUN DUTE 90EKO HAMARKADAREN HASIERAZ GEROZTIK. TRABARIK GABE MUGITZEN DIRA PERFORMANCE, BIDEO ETA ARKITEKTURAREN ARTEAN, TEORIA AKADEMIKOAREN ETA ENTRETENIMENDU HUTSAREN ARTEAN. WWW.INTERNATIONALFESTIVAL.COM

IGANDEA 21. 13:00. LABORAL, 1 ARETOA

CUERPO/ESPACIO/MEMORIA. **SANTIAGO ERASO**.

NOLA EDO HALA, ORAINA BESTERIK EZ DAGO. IRAGANAREN INTERPRETATIO ORO, BESTE GARAI BATEN EDOZEIN OROITZAPEN NOSTALGIKO BIRSORKUNTZA BESTERIK EZ DA, BETI ASMATUA, BIZIA IZAN DAITEKEEN IGAROTZE BAKARRAREN -ESPAZIO/DENBORA- ZEREGIN BERRI BAT: BIZITZA, MUGARIK GABE; POSIBILITATEA SORTZEKO, GURE EXISTENTZIA EKINTZA "PERFORMATIBO" ETENGABE BIHURTZEKO, EGIN ETA DESEGITEN DENA BERE SORRERAREN IMMANENTZIAK BERTATIK. SORTZEA BETI DA BIRSORTZEA, ETA ERA BEREAN BIZITZEA BERRIRO BIZITZEA. BERAZ, IRAGANAREN EDOZEIN BIHURTZE FIKZIO BAT DA, ERREALTZAT JOTZEN DEN ORAINGO BIZITZAREN NAHITA EGINDAKO ERAIKUNTZA. EDO BEHARBADA EZ? NIETZSCHEREN "BENETAKO MUNDUA ALEGIA BIHURTZEN DA" TESIA BENAZ HARTZEN DA ETA ARTEAREN BIZITZERA BEHARTZEN GAITUZTEN BIZITZAREN AURKAKO POSIBILITATE GUZTIEK, FORMEN GOZATZEA INPOSATZEN GAITUZTEN EDERTASUNAREN AURKAKO POSIBILITATE GUZTIEK ENTZUN GABEKO IRAULTZEN, KONTAKIZUN PARADOXIKOEN, HIZKUNTZA BERRIEN ETA KONTAKIZUN EZINEZKOEN EREMU INFINITU BAT ZABALTZEN DUTE.

SANTIAGO ERASO. DONOSTIAN JAIKO ZEN 1953AN. SEVILLAN BIZI DA. FILOSOFIA ETA LETRETAN LIZENTZIADUNA. 2006 ARTE ETA 20 URTEZ ARTELEKU – DONOSTIAKO ARTE ETA KULTURA GARAIKIDEKO ZENTROAREN ZUZENDARIA IZAN ZEN.

GAUR EGUN ANDALUZIAR NAZIOARTEKO UNIBERTSITATEKO UNIA ARTEPENSAMIENTO-REN EDUKIEN TALDEKO KIDEA DA, ETA KOLABORATZAILE INDEPENDENTE MODUAN DIHARDU ZENBAIT ERAKUNDE PUBLIKOTAN, KULTUR ALORREKO ENPRESETAN ETA BESTE HORRENBESTE MUGIMENDU SOZIALETAN.

URTE HAUETAN GAUR EGUNGO ARTE ETA PENTSAMENDUAREN GAI ZENTRALAK PLANTEATU DIREN ZENBAIT TOKIKO ZEIN NAZIOARTEKO FOROTAN PARTE HARTU IZAN DU. HAINBAT TESTU ARGITARATU DITU, ETA BERE EKARPENAK EGIN DU ARTEAK ETA KULTURAK EGUNGO GIZARTEAN BETETZEN DUTEN FUNTZIOAREN INGURUKO EZTABAIDAN. OHIKO KOLABORATZAILEA DA OROBAT DIARIO VASCO DE GIPUZKOAN ETA LA VANGUARDIA DE CATALUÑAREN "CULTURAS" GEHIGARRIAN..

LARUNBATA 27 / IGANDEA 28. 22:00H.
SERRALVES



KAÏROS, SÍSIFOS Y ZOMBIS (2008)

ZUZENDARITZA ETA KONTZEPTUA: OSKAR GÓMEZ MATA.
KOLABORATZAILEA: ESPERANZA LÓPEZ
TESTUAK: PERÚ C. SABÁN, OSKAR GÓMEZ MATA
ZUZENDARITZA LAGUNTZAILEA: DELPHINE ROSAY
INTERPRETEAK: OSKAR GÓMEZ MATA, MICHÈLE GURTNER, ESPERANZA LÓPEZ, OLGA ONRUBIA, VALERIO SCAMUFFA/
ESZENA ANTOLAMENDUA: CHINE CURCHOD, RÉGIS GOLAY, OSKAR GÓMEZ MATA
MAKINEN ERAIKUNTZA: STÉPHANE GOLAY/
ETXETXO-HABIAREN ERAIKUNTZA: PHILIPPE JONER
KOORDINAZIO ESZENOGRAFIKOA: CLAIRE PEVERELLI
SOINU SORKUNTZA ETA ZUZENDARITZA TEKNIKOA: SERGE AMACKER
ARGI SORKUNTZA: MICHEL FAURE
ARGI TEKNIKARIA: FLORENT NAULIN
JANTZITERIA: ISA BOUCHARLAT
EKOIZPENA ETA HEDAPENA: BARBARA GIONGO
ADMINISTRAZIOA: SYLVETTE RIOM/

KOPRODUKZIOA: L'ALAKRAN KONPAINIA, LA COMÉDIE DE GENÈVE – CENTRE DRAMATIQUE, ESPACE MALRAUX SCÈNE NATIONALE DE CHAMBERY ET DE LA SAVOIE
HONAKO HAUEKIN ELKARLANEAN: BAD JAIALDIA (BILBO), LE GRAND MARCHÉ – CENTRE DRAMATIQUE DE L'OCÉAN INDIEN, L'ARSENIC – CENTRE D'ART SCÉNIQUE CONTEMPORAIN (LAUSANNE), ETA L'ORGANE GENEVOIS DE RÉPARTITION DES BÉNÉFICES DE LA LOTERIE ROMANDE ETA PRO HELVETIA – FONDATION SUISSE POUR LA CULTURE ET DU POUR-CENT CULTUREL MIGROS-REN LAGUNTZAREKIN.

L'ALAKRAN KONPAINIAK GENEVAKO ERREPUBLIKA ETA KANTOIAREN ETA GENEVA UDALAREN KULTURA DEPARTAMENTUAREN BABESA HARTZEN DU.

GREKOENTZAT *TIMING* ONA LOTUTA ZEGOEN KAÏROS KONTZEPTUARI, ALEGIA, GAUZAK EGITEKO DENBORA EGOKIA, “DAGOKION” DENBORA. KAÏROSEN EGOTEAK OSOTASUNAREKIN ONGI SINTONIZATUTA EGOTEA ESAN NAHI DU. DENBORAREN NOLAKOTASUNA IZENDATZEN DU, HAU DA, JOKATZEKO UNE EGOKIA EZAGUTZEA.

KAÏROS KONTZEPTUAK, AION-I ETA KRONOS-I ELKARTUTA, DENBORA DEFINITZEA AHALBIDETZEN DU.

KAÏROS AUKERA EGOKIAREN DENBORA DA. UNE BAT KALIFIKATZEN DU.

KAÏROS, KRONOSEN NOZIO LINEALAREKIN ZERIKUSIRIK EZ DUEN DENBORAREN DIMENTSIO BAT, UNEAN SAKONTASUNA SORTZEN DUEN BESTE DIMENTSIOTZAT JO LITEKE.

KAÏROS GREZIAR EFEBO GAZTE BAT DA, BURUAN ILE XERLO BAKARRA DARAMANA. ALBOTIK PASATZEN ZAIGUNEAN HIRU AUKERA DAUDE: EZ DUGU IKUSTEN; IKUSTEN DUGU ETA EZ DUGU EZER EGITEN; EDO, PASATZEN DEN UNEAN, ESKUA LUZATU, ILE XERLOTIK HELDU ETA GELDIAZAZI EGITEN DUGU (DENBORA GELDIAZAZTEN DUGU). KAÏROS LATINEZ *OPPORTUNITAS* (AUKERA, ABAGUNEA AUKERATZEA) BILAKATU DA.

HARRAPATUTA BIZI GARA DENBORA KRONOLOGIKO BATEAN, JAIOTZA-HERIOTZA BIZI-LERRONAN. BIZITZEKO ETA HILTZEKO PATUA DUTEN IZAKIAK GAREN ALDETIK, PARADOXA BATEAN GAUDE GAUR EGUN ESPEZIE GISA: ALDE BATETIK BETIKO BIZITZERA JOANGO BAGINA BEZALA JOKATZEN DUGU (ANTZA DENEZ, DENOK IZAN BEHAR DUGU GAZTEAK, DINAMIKOAK ETA OPERATUAK), ETA BESTETIK ESTUTUTA HERIOTZAREKIN BATERA DENA GALTZEN DELAKOAN, ETA ZER ZENTZU HARTZEN DU GURE BIZITZAK EGITEN DITUGUN AHALEGIN GUZTIAK EZEREZERA KONDENATUTA DAUDELA IKUSTEN DUGUNEAN.

GURPIL ZORO HORRI IHES EGITEKO MODUA DA KAÏROS, UNE HORRETAN AUKERA AGERTZEN BAITA BESTE UNE BATERA IHES EGITEA, INSTANTAREN SAKONTASUNA ATZEMATEA, AHALBIDETZEN DIGUNA. IRUDIKA DEZAKEGU UNE HORRETAN GURE KONTZIENTEA ETA GURE INKONTZIENTEA ELKARRI LOTZEN ZAIZKIOLA.

ZONBI KONTZIENTEAK GARA, BIHUR GAITEZEN ZONBI INKONTZIENTE, ZULATU DEZAGUN ERREALATEA: ZULO HORREN ATZEAN DENA DAGO. KAÏROSEN IKUSTEN DUZUNA DA, DENA IKUSTEN DUZU.



IRAILAREN 1 ETIK 12A BITARTEAN. ARTELEKU

MARTEN SPANGBERG ETA TOR LINDSTRAND

“ANTZOKIAK ANTZERKIARI DAGOZKIO TELEFONO KABINAK TELEFONIA MUGIKORRARI DAGOKION NEURRI BEREAN”.

INTERNATIONAL FESTIVALEK STEIRISCHER HERBST-EKIN ELKARLANEAN EGINDAKO “THE THEATRE” PROIEKTUAK ANTZOKI-ERAIKINEN PERFORMANCEAN DU JATORRIA. ALDI BEREAN PERFORMANCEAREN ULERPENA ALDATZEN ARI DA, ETA PROIEKTUAREN XEDEA DA ERAIKINA BEREZ JARRAITZEN DUEN ETA IRAUTEN DUEN CONTINUUM MODUAN HAUTEMATEA. HARREMAN ORO ANTZERKIA DA ETA ERAIKIN ORO ESZENATOKI BAT DA.

AZKEN 100 URTEOTAN ARKITEKTURA ETA HAREN EGOERA IZUGARRI ALDATU DIRA. DENBORA HORRETAN BERTAN GAUZA BERDINAK GERTATU DIRA ANTZERKIAREKIN. BAINA ZER GERTATU DA ANTZOKIAREN ERAIKINAREKIN ETA HARTAZ DUGUN ULERPENAREKIN?

ANTZOKI BAT ANTZOKI BAT BADA ETA ERAIKINA ERAIKINA BADA, ORDUAN ANTZOKIAREN ERAIKINA ERAIKUSKETA ARETO BAT IZAN BEHARKO LUKE, EDO PERFORMANCEAK EGITEKO ERAIKIN BAT. EGOERARIK OKERRENEAN ERAIKINA HOR DAGO ANTZERKI ESTATIKOA EGITEKO, EDO ANTZOKI BATEN ERAIKINAREN TESTUINGURUA, ANTZOKIA NAZIONALA DEN EDO KOMERTZIALA DEN BEGIRATU GABE; TESTUINGURU SOZIAL, EKONOMIKO ETA POLITIKO ZEHATZ BATEK ERABAKITAKO HARREMAN KOPURU HANDIA SORTZEN DU.

PRAKTIKA, PRAKTIKA, PRAKTIKA. PORTAERA ALDAKETA BATEK GEURE BURMUINAK AURRERABIDEA ETA ASMAMENAREN BIDEAN BIRKOKA DEZAGUN ESKATZEN DIGU. BERAZ, ALDAKETA HORI SEGURTATZEKO DUGUN MODU BAKARRA PROBASAIOAK EGITEA DA. *INTERNATIONAL FESTIVAL* PROIEKTUA PERFORMANCEAREN ETA ARKITEKTURAREN ARTEAN DABIL, ETA ZIRKULAZIOAN JARTZEN DITU KULTURAREN SEKTOREAN SOR DAITEZKEEN ELKARLAN MOLDE BERRIAK. “THE THEATRE” HONEN HELBURUA DA GAUR EGUNGO KULTUR PRAKTIKAK ETA EKONOMIA AIPAGAI HARTZEA LANAREN LANAZ GAUR EGUNGO ALTERNATIBA BAT ERAIKITZEKO AHALEGIN AKTIBO BATEN BITARTEZ.

EZ DA ARETO DIZIPLINANITZEKOA, BAI, ORDEA, EGITURA ANITZ DIZIPLINARRA, PERFORMANCEAREN ETA ARKITEKTURAREN ESPEZIFIKOA DENA, BERE DIZIPLINEN BITARTEZ ANIZTASUNERANTZ EDO IA KULTUR PRODUKZIOAREN NOZIO ANITZ BATERANTZ FUNTZIONATZEN DUENA. ELKARRI LOTUTAKO URRATS UGARIREN BIDEZ ABIARAZTEN DA, ETA PENTSAMENDU-GORDAILU MODUAN FUNTZIONATZEN DU, BAITA KULTUR ERAGILE ETA TALDE SORTZAILE ASKOK ESPERIENTZIAK PARTEKATU ETA SORTU DITZAKETEN NORABIDE ANITZEKO TOPALEKU GISA ERE. PROIEKTU HONEK ANTZERKIA, BEHINGOZ, UNIBERTSITATE BIHURTZEN DU, SAREKO ERAIKIN ETA KONFRONTAZIO AKTIBORAKO ESPAZIO, EZ BAKARRIK IKUSTEN DUGUNAREN ARABERA, BAITA EXISTITZEN GAREN ETA GURE GIZARTEAN PARTE-HARTZAILE GARAIKIDE BIHURTZEN GAREN HEINEAN ERE, HEMEN ETA ORAIN; NAZIOEN MUGEN GAINETIK, TOKIKO TESTUINGURU ESPEZIFIKOEN BITARTEZ.

TOR LINDSTRAND ETA **MARTEN SPANGBERG** 2004AN HASI ZIREN ELKARREKIN LANEAN JARDUTEN *INTERNATIONAL FESTIVAL* GISA, BAINA ELKARREKIN LAN EGIN DUTE 90EKO HAMARKADAREN HASIERAZ GEROZTIK. TRABARIK GABE MUGITUZ PERFORMANCE, BIDEO ETA ARKITEKTURAREN ARTEAN, TEORIA AKADEMIKOAREN ETA ENTRETENIMENDU HUTSAREN ARTEAN, *INTERNATIONAL FESTIVAL* HONEK AZUKRE-KOTOIA EGITEKO MAKINA BAT ERAMAN DU EINDHOVEN-EKO VAN ABBEMUSEUM-ERA PUNTU GOZO ARROSAK JAURTITZEKO TEILATUAREN GAINEAN, ALDI BATEKO SUKALDEA SORTU DU BERLIN'S HOUSE OF WORLD CULTURES-EN, APARKALEKU BAT PLAZA PUBLIKO BIHURTU DUTE ESTOKOLMO INGURUKO TENSTA KONSTHALL-EN, ZENBAIT BIDEO EGIN DITUZTE (*AFTER POLLOCK*, 2005, PANTAILA HANDI BATEN ALDE BATEAN JACKSON POLLOCK AGERTZEN DA PINTATZEN, STANLEY KUBRICKEN 2001EKO TXINPANTZEA BESTEAN AGERTZEN DEN BITARTEAN KAMERA GELDOAN HEZUR BATEKIN JOTZEN) ETA BEREN ARGITALPEN ARETOA ETA BEREN ESKOLA DUTE, *INTERNATIONAL FESTIVAL UNIVERSITY* IZENEKOA, HAINBAT MUSEOTAN LEKUA IZAN DUENA. [HTTP://INTERNATIONAL-FESTIVAL.ORG](http://international-festival.org).



Ion Munduate + Blanca Calvo
Pinar 5, 7º B
20301 Irún
Tel + 34 943 577842
GSM +34 609 946 180
info@mugatxoan.org
<http://www.mugatxoan.org/blog/>



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Kristobaldegi 14
E-20014 Donostia-San Sebastián
Tel. +34 943 453 662
arteleku@gipuzkoa.net
www.arteleku.net

SERRALVES

Rua D. Joao de Castro 210
4150-417 Porto
Tel. +351 226 156 580
c.grande@serralves.net
www.serralves.net

laboral
teatro

Luis Moya Blanco 261
33203 Gijón
Tel. +34 902306600
www.teatrodelalaboral.com